

1979-VI-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979. eko Ekainaren 29 an, arratsaldeko lauetan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, buruordeko, J. L. Davant, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez "Txillardegi, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, F. Mendizabal, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

Diharce, Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Datorren hileko bilera Uztailaren 20an, Elizondon izango dela aditzera eman da. "Fiestas Euskaras" izen haundiko biltzarren men-deurrena ospatzeko eratu diren eginkizunetan sartzen da.

Gipuzkoako Aurrrezki Kutxa Probintzialak bere kontseilaritzarako egina zuen eskariari erantzunez, Juan San Martin izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari.

Bergarako Biltzarrean "H"ari buruz lana zehazteko izendatu zen batzordeak lehen hitz-zerrenda ekarri du. Lehen-bait-lehen aurkezpena egiteko gelditu da.

b) *DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA*

Irakaslego batzordeak, azkeneko azterketen ondoreak ikusirik, programatze berriaren beharra agertu du. Izan dituzten eragozpenen berri eman dute. Udan ez da azterketarik egingo, Nafarroako ikasleentzat ezik.

Administral hiztegiko lankideak bildu dira eta helburuen berri emanik, aztertu beharrak diren iturriak aipatu eta lanerako prozedura mugatu da.

"Euskararen Lekukoen" batzordeak Lizarraga Elkanokoaren liburua berehala ateratzekoa dela jakin du. Denbora berean, Patxi Altunak Etxeparez egina duen lana ikusi eta bilduma honetan argitaratzea erabaki da.

c) *TXOSTENAK*

Joseba Intxaustik, Barzelonan, *Euskararen Liburu Zuria* eta beste estudio biak aurkeztu direla aipatu du. Bertako Unibertsitatean egin zen eta oso harrera ona izan dutela azpimarratu da.

“Euskal alfabetoaren letrak” gaitzat harturik irakurri du Xabier Kintanak bere txostena. Hilabeteko epean oharrak bialdu daitezke.

Karlos Santamaria jaunak etortzerik ez duela adierazi du eta ez da bere gaia ukitu.

Eta besterik gabe, ohi den otoitzarekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

Idazkaria

L. Villasante

J. M. Satrustegi